



Arrokkagarai
ikastolako
eskola
proiektua



HAURREN EMAITZEN HOBETZEZA HEZKUNDE NAZIONALAK FINKATU HELBURUEI BEGIRA,
AMA IKASTOLATIK KOLEGIOA ARTEKO IKASPENEN PROGRESIO KONDUTAN HARTUZ.

HELBURUAK

- Autonomia : lehen sartzetik autonomia garatzen ikasten dute haurrek : beztitzeko, pusken hartzeko, laguntza galdegiteko, komunera joaiteko, prestatzeko...horretarako maila desberdineri egokitutako helburuak finkatzen eta lantzen ditugu gelan eta kanpoan. Haurrak beren baitarik egiten ikastea da helburua : entseatu, trebatu, hasi eta berriz hasi, emeki emeki lortzeko.
- Erritmoaren errespetua : haur guziak desberdinak izanki, bakoitxak badu garatzeko bere erritmoa eta hau kondutan hartzen dugu ikaspen eta bizipen desberdinentzat. Haur bakoitxari behar duen denbora uzten zaio helburu batetara heltzeko. Gisa hortan zikloka antolatuak dira gelak, (ahalen arabera) helburuak ziklo bukaeran lorpen bezala hartuak izaiteko.
- Ama ikastolan, ikasgai desberdinak lehenik gorputzez bizituz hasten gira (manipulazioa) ondok abstraktura pasatzeko. Aintzinetik aipatuak gisa hortan eraikiak dira : Borel, bakarka saioa , Xokoak...

EKINTZAK

- Epe bakoitxak gai bati lotzen dugu eta ikastola guziak gai berdina lantzen du memento berean, bakoitxak bere mailan. Molde hortan, lantzen denari zentzua emaita, haurren motibazioa eta gaiaren borobiltzea dugu helburu.

- Haurreri urtean gai baten hautatzeko posibilitatea uzten diegu : 4 eta 5. Urtekoen pribilegioa izaiten da hori. Honela, haurren gustuen konduhan hartzea eta honekin ikasteko motibazioaren estimulatzea lehenesten dugu.
- Ama ikastolan ttipitatik « Borel » metodoarekin fonologia eta irakurketa/idazketan sartzea lantzen dugu : hizki eta soinu bakotxa keinu bateri lotuz, joko bidez ttipitatik hizkien munduan sartzen dira haurrak eta horrekin irakurketarako prestatzen dira.
- Bestalde « Bakarka saioak » antolatzen ditugu : autonomian egiteko diren joko/tailer batzueri esker haurrek matematika, irakurketa/idazketa, zentzumena eta motrizitate fineko helburuak lantzen dituzte.
- Azkenik, xokoka lan egiten dugu ama ikastolan : zenbakien xokoa, hizkiarena, eraikuntzarena, artearena, zientziarena... xoko bakotxean bertako helburueri lotuak diren lanak egiten ditugu ; haur bakotxa librokori ibiltzen da aste hastapenean aurkeztuak izan zaizkion lanen egiten.
- Etxeko lanak.....

Ikastolan gelak zikloka banatzea lehenesten dugu haur desberdinen erritmo desberdinak errespetatuak izaiteko gisan. Ama ikastolan 3, 4 eta 5 urteko haurrak nahasirik dira gela berdinean.

Molde hortan, haur bakotxaren erritmoen errespetatzeko eta ttipi/haundi desberdintasunen saihesteko, ama ikastolako haurrei lore izenak ezarri dizkiegu adinaren arabera :

5 urtekoak LUBEAZUNAK dira, 4 urtekoak IGUZKI LOREAK eta 3 urtekoak EZPATA LOREAK. 2 ,5 urtekoak berriz HAZIAK deitzen ditugu.

Haurren interesen eta etxeko jakitatearen balorizatzeko, BIZI KAIERA eta ZER BERRI saioak egiten ditugu :

- BIZI KAIERA : gelan elgarrekin hautatzen dira astean zehar iragandako memento batzu, ikasitakoak, gertakariak... haurrek gogokori dituztenak eta helduari diktatuz gelako kaierean idazten ditugu. Haurrek ere arra kopia ditzazkete. Idatzitakoaren irudikatzeko argazkiak, irudiak edo/ta marrazkiak kolatzen ditugu. Ondotik, asteburuan, haur bakotxak aldizka kaiera etxera eramaiten du familiakoekin partikatzeko gisan. Haurrak ere etxekoekin bere kondakizuna egin dezake nahi duen moldean, astelehenean gelako laguneri erakusteko gisan.

Molde hortan idatziaren funtzioaz ohartzten dira haurrak, kondakizunen erredakzioan parte hartzen dute hizkuntza landuz, eta etxea-ikastolaren arteko lotura sendi dute.

EZPATA LOREEk aldiz bakotxak bere kaiera dute eta tresna hau lagungarria izaiten ahal zaie gelan egiten denaren kondatzeko etxean, lotura horren markatzeko eta gelako aktibitateetan egin dutenaren balorizatzeke.

- ZER BERRI : astero haur batzuek « Zer berri »n parte hartzeko izena eman dezakete : lagunuen aintzinean aurkeztu nahi duten gaiak aurkezpena prestatzen dute etxean. Ondotik lagunek galderak pausatzen ahal dizkie. Molde hortan haurren interesak balorizatzen ditugu, gauza berriak ikasiz edo ezagutaraziz, eta aurkezpena eta hizkuntza lantzen ditugu.

HEZIKETA KULTURAL ETA ARTISTIKOA ETA BALORE HUMANISTAK, IKASLEEN ARTEKO
BERDINTASUNA GARATZEKO .

HELBURUAK

- Ikastolako hurrek gatazkak eta desadostasunak kudeatzen ikasiko dituzte elgarren artean mintzatuz : Marshal Rosenbergek definitu komunikazio ez bortitzaren 4 urratsetan oinarriturik. TTipidanik, haurrei ohartaraziko zaie ezberdintasuna aberasgarri dela. Bestearen eta bere buruaren errespetuan, elgar bizitzen ikasi behar dute.
- Haurren ongi izaitea talde bizitzan : Talde bizitzan adin ezberdinetako neska mukikoen behar, erritmo eta izaite desberdinak konduan hartzea baitezpadakoa da norbera talde bizitzan ongi sendi dadin. Bere lekua besteen artean egiteko taldearekiko eta berebaitako konfientza senditu behar du ikastolako mementu desberdinetan. Zentzu horretan, ikastolan garatuko diren harremanak « onginahian » (bienveillance) kokatu nahi ditugu.

Bestalde, adin desberdinen arteko elgar trukatzekak elikatu nahi ditugu elkartasuna eta laguntza ispiritua garatzeko.

- Euskara eta euskal kulturaren ezagutza plazerrari eta nortasunari lotuak.

Ikastolan euskara mintzatzekak gaitu euskaldun egiten. Momentu guzietan, ikastola denboran baita ateraldi denboretan edo ikusgarrietan, **euskara nahi dugu lehenetsi** komunikazio hizkuntz gisa. Euskara **harremanari** eta **plazerrari** lotu nahi dugu ahalik eta motibagarrien izan dadin gure haurrendako.

EKINTZAK

- Gela bakoitzean, ama-ikastolatik lehen mailara haurrak **K.E.B** baliatzen ikasiko du elkar bizitzako saioaetan.

Gelan bertan, **sendimenduen xokoa** baliatzen ikasiko du horren inguruko hiztegia garatzeko. Gisa hortan, bizi dituen sendimenduak izendatzen ahalko ditu eta gertakari desberdinen aintzinean pasatu dena pentsatzeko denbora hartuko du.

Aire hartze denboretan : gertatzen diren konfliktuak kudeatzeko **bitartekari** izendatuko da. Laguntzaileak bata eta besteari hitza emaiten die eta gatazka urraskak berriz kondatzen lagunduko ditu ; elgarren arteko adosmen bat atxeman arte.

Egunean zehar, aire hartzeetatik landa, erakasleak denbora bat hartuko du elkar bizitzan sortu diren arazoak aipatzeko.

- **Haurren erritmoa** : ama ikastolako geletako antolaketan, ahalaz **zikloka** lan egiteari (AI123) atxikiak gira. Elkar laguntza bainan ere bakoitzaren erritmoa zaindu nahian. Taldeak ere izen bereziekin izendatzen ditugu : haziak/ezpataloreak/iguzkiloreak eta lubeazunak(ez eta ttipi ertain handi) haur baten ahalak ez adin bati mugatzeko gisan.

Ikastolako besta baliatuko da adin desberdinak nahasteko eta proiektu motibagarri bat sortzeko ikastolako haur guzien artean.

Norberak bere ezagutza eta lekua taldean goxoki senditzeko :

AI : *Bizi kaiera* gazteenek berena eraikiz, liburuxka pertsonal bat idatziko dute etxeko edota ikastolako kondakizun batzu erakutsiz. Argazki, marrazki, irudi eta idatziaren bidez haurrak bizi bilduma bat eraikiko du ikasturtean zehar taldearekin partekatuko duena ahozko aurkezpen bat eginez. Ondoko urteetan taldeari lotzeko gelako bizi kaiera bakarra eraikiko dute, txandaka etxera ekarriz asteburuetan.

LM : Norabide beretik, lehen mailako geletan *Zer berri ?* saioan haur bakotxak hautatu gai bati buruz aurkezpen bat prestatzen ahalko du. Lehen helburua izanki haurraren autoestima, konfientza eta ongi izaitea taldean garatzea.

- Ikastolan egiten direnak partekatu nahi dira burasoekin. Ikastolako ekintzek zubi bat bezala sortu behar dute etxekoekin. Etxekoekin hartu eman bat segurtatu nahi dugu euskaraz oinarriturik.
 - o Ikusgarria adibidez ikastolako haur guzientzat proiektu motibagarri bat izanen da burasoei eskaini nahiko zaiena.
 - o Kantu kaiera : AI tik LM gela guzietara, eta bakantza oroz hurrek ikasi kantu edo olerkiak euskaraz aitamekin partekatzen ahalko dituzte bilduma horri esker.
 - o Seaskak ekartzen dizkigun bertsoalaritza eta bizi jolas proiektuek azkartzen dituzte gure izaite kulturalak bereziak.
 - o Euskara plazerrari lotzen segitzeko tailer desberdinak proposatzen dira epe guziz. Haurrek haien gustuen arabera hautatuz aktibitate berri bat. Taldeetan adin desberdinetako haurren harremana euskaraz garatu dugu.
 - o Azkenik, jolasak euskaraz garatzeko, aire hartze animatuak proposatuko ditugu garai batzuetan.

HELBURUAK

- Pentsatzen dugu, ikastolak haur guziei eskaintza bera proposatu behar diela, ahantzi gabe, haur guziak desberdinak direla eta haur bakotxa bere nortasunarekin datorrela ikastolara.
- Handien eta ttipien arteko desberdintasun ezkorra saihesti nahi dugu. Horrela, haur bakotxa bere heldutasun garapenaren arabera handitzen laguntzen ahal dugu.
- Haur baten zailtasunen aitzinean ahal bezain ikuspundu orokor bat nahi dugu ukan. Hortarako, askotan ekipa osoan aipatzen ditugu gure zailtasunak eta beharrez, kanpoko iritziak ere galdegiten ditugu.
- Garrantzitsua iduritzen zaigu, goizero, haur guziei askariko fruitu biologiko baten eskaintzea. Etxetik ekar balezate, alde batetik elikaduraren zaintzea zailago litzaiguke. Bestalde, pentsatzen dugu gustuaren garatzea ikastolan egin daitekela eta kalitatezko mozkinak eskainiz, segur gira haur guziek sanoki janen dutela

EKINTZAK

- Biziki atxikiak gira ama ikastolan, hiru adinak nahasiak izan ditzen. Horrela, gazteenek ikasten dute zaharrenei begiratzuz, zaharrenak, heien gaitasunen arabera eredu bilakatuz. Haur bakotxak, gaitasun edota afinitatearen arabera bere lekua atxemaiten du taldean.
- Gela bakotxak lore izen bat du, « handi/ttipien » arteko desberdintasuna edo hierarkia kendu nahian. Haurrek ez dute sofritzen « ttipien » erroi hortan eta handienak ez dira baliatzen heien « handi » izaite hartaz.
- Haur bat zailtasunetan ikusten edo senditzen badugu, lehenik ikastolako Ekipa osoan aipatzen dugu. Bestalde, Seaskako psikologo ekipari dei egiten diogu, heiekin batean, haurraren beharrei ahal bezain untsa erantzuteko gisan.
- Astero, Goizetik lantegitik sasoineko fruitu mota desberdinak manatzen ditugu, goizeko askarian haurrei banatzeko gisan.

HELBURUAK

- Haurraren hezkuntza lehen lehenik burasoei baitoakio, burasoek indar eta leku berezi bat ukan dezaten ikastolako bizian garrantzitsua iduritzen zaigu. Buraso eta ekipa pedagogikoaren arteko partaidetza bat bezala ikusten dugu haurraren hezkuntza.
- Euskararen lekua ikastolan baitezpadakoa da eta ikastolaren funtsezko oinarria. Euskarari leku handi bat eman nahi diogu ikastolako eremutik kanpo ere, ikaskuntzako eremutik kanpo ere, auzoan baita herrian zabaltzeko gisan eta euskara herriko komunikatzeko hizkuntza izan dadin.
- Partaidetza eta harremanak nahi ditugu herriko beste egiturekin, izan beste eskolak, herriko etxea baita ere elkarte desberdinekin.

EKINTZAK

- Ikastolan hezkuntza talde bat bada, buraso eta irakasle ordezkari batzuekin. Elgarrekin finkatzen ditugu ikastolan garrantzitsuak iduritzen zaizkigun ardatz nagusi batzu, izan pedogogiari begira, baita ere elkar bizitzari begira.
- Euskarak bere lekua atxeman dezan ikastolako eremutik kanpo, Euskaraz Bizi talde bat bada, hor ere buraso eta irakasle ordezkari batzuekin. Talde hunen aldiz, euskaraz diren animazio batzu proposatzen dituzte ikastolatik kanpo. Adibidez, urte guziz Itsasun Olentzeroren inguruko besta bat antolatzen dute, baita ateraldi batzu ere, haur, buraso eta irakasleen artean. Ateraldi horien helburu nagusietarik bat izanki beti, euskaraz mintzatzea eta gozatzea.
- Herriko beste bi ikastolekin harreman hestruak ditugu. Urtero, elkartzen gira eguberri kari baita ere ihauterien antolatzeko. Herrira ateratzen gira hiru eskolak herrian dinamika eta animazio berezi bat segurtatuz. Korrika urteetan, Itsasuko baita ere auzo herrietako eskoletako haur guziek Korrika Ttipin parte hartzen dugu.
- Bestalde, herriko haurzaindegia baliatzen dugu arratsaldetan, beste eskoletako haurrekin batera.
- Herriko liburutegira ikastolako talde bat hilabetean behin joaiten da.